



ZAMUDIOKO KAMARA KORALA -2008 MEMORIA—

***URTARRILA**

Derioko Iparralde abesbatzak antolatutako Gabon kontzertuetan jarraituz, azken ekitaldia Derion izan genduan urtarrilaren 4an.

***MARTXOA.**

Emakumeen eguna ospatuz eta Amatza abesbatzak gonbidatuta, martxoaren 8an Sestaon eskaini genduan kontzertua.

***APIRILA- EKAINA:**

-Udaberriko kontzertuak

Zamudioko kamara korala sortu zanetik Bizkaiko Abesbatzen Elkartean (BAE) dago.

BAEk eta bertoko koruak, BBKgaz batera, udaberriko kontzertuak deritzon saioak eskeintzen dabez.

Zamudioko Kamara Koralak udaberriko kontzertu honeetako programazioan hauxe da:

- GORLIZ: Apirilaren 19an, arratsaldeko 20:00etan, Andra Mari eleizan.
- BILBO: Apirilaren 26ean, arratsaldeko 20:15etan, Iralabarriko San Francisco eleizan.
- ZAMUDIO: Maiatzaren 10ean, arratsaldeko 20:30etan, San Martin eleizan, eta Paskoatako jaien barne.
- VILLARCAYO: Ekainaren 7an. Arratsaldeko 20.00etan.

-EKAINA: Bizkaiko Abesbatzen Egun korala

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak, ekainaren 8an Egun Korala ospatuko da. Aurten Erandion izango da.

Egun koralean 1.800 inguru abeslariz osatutako kontzertu haundi bat eskeintzen da.

-EKAINA: Urteroko taldeko irteera



***AZAROA**

-San Martin jaietan, aurten, XVIII kontzertua antolatuko dogu.

-Santa Cecilia, abeslarien patroiaaren eguna ospatuko dogu.

***ABENDUA:**

-Olentzero:

Zamudioko Kamara Korala sortu zanetik eta bere estatutoetan adierazten dauanlez, euskal ohiturak eta folklorea lantzea da bere eginkizunetariko bat. Horrela bere sorreratik, Olentzeroren abestia eta baserriz baserri abesteko ohituraz jarraitzen dogu.

Gaur egun, udaletxeko deiaz eta herriko beste taldeakaz batera herrian antolatzen dan ekitaldean parte hartzen dogu.

Egun horretan goizean zehar eta eguerdirarte, Zamudioko baserrietatik abestuko dogu

-Txorierriko Gabon kontzertuak:

Derioko Ipar Alde abesbatzak urtero antolatutako kontzertu hauetan parte hartzen dogu.

TEKNIKA IKASTAROA

Iazko ikasturtean egin genduan legez, 2008an ere kantuko teknika ikastaroekin jarraitu dogu.